

# HAURTZARO IKASTOLAKO KONTSEILU ERREKTOREA

Haurtzaro Ikastola duela 69 urte sortutako herri egitasmo bat da. Garai hartako oiartzuarrek bere seme alaben hezkuntza nolakoa izan behar zuen erabaki nahi zuten.

Guztion artean sortutakoa eta denen parte-hartzea ezinbestekoa zenez, denok bazkide izango ginen kooperatiba batean elkartzea adostu zuten.

Gaur egun berdin jarraitzen du, guraso eta bazkide bezala, Haurtzaro Ikastolako erabaki gune guztietan parte hartzeko aukera eta beharra dugu.

Orain Haurtzaro Ikastolako Kontseilu Errektorera gurasoon ordezkaria izateko aukera duzu.

## Zer da Kontseilu Errektorea?

Batzar Nagusiak (bazkide guztiontzat egiten den urteroko bilera orokorra) delegatzen dizkion eginkizunak bete eta ikastolaren jarduera orokorra gainbegiratzen duen organoa da.

Batzar Nagusiaren organo ordezkatzailer eta funtzionala da.

Batzar Nagusiaren erabakien pean dago. Baina menpekotasun hori gordeaz, organo autonomoa da.

## Erabakiak:

Bazkide Onuradun eta Lan Bazkide bakoitzak boto bana du. Besteek ez dute botorik, beraz 5+5.

Bozketa batean berdinketa gertatuko balitz, lehendakariaren botoak bikoitza balioko luke. Lehendakaria kontseiluko Bazkide Onuradunen (gurasoen) artean aukeratua izaten da.

Nahiz eta erabakiak bertan dauden kideen gehiengo soilez hartu daitezkeen, erabakiak aho batez hartzen saiatuko dira Kontseilu Errektoreko kideak.

## Funtzioak:

Batzar Nagusiko deialdia egin eta haren aginduak betearaztea.

Zuzendaritza izendatzea.

Kooperatibaren martxa antolatzea, gidatzea eta ikuskatzea.

Langileen lan baldintzak ituntzea.

Langile berriak aukeratzea.

Ikasleen onarpenerako irizpideak definitzea.

Gatazkak zuzentzen ahalegintzea.

Pedagogi arloko plangintza onartzea eta ikastolako proiektu eta errendimendu eskolarra jarraitzea.

**5**  
**BAZKIDE ONURADUN**

**5 LAN BAZKIDE**  
HH  
LH  
LH  
DBH  
EZ DOZENTEA

**ZUZENDARIA**

**ADMINISTRARIA**

**UDAL ORDEZKARIA**



Kontseilu Errektorea hilean behin elkartzen da.  
Ez ohiko Kontseiluak izaten dira.

# KONTSEILU ERREKTOREA NOLA OSATZEN DA?

**GURASO 1**  
LAN BATZORDEA  
Hilean behin  
BEKA BATZORDEA  
Urtean behin edo bitan

**GURASO 2**  
OIARTZO  
Hilean behin  
O.U.I.P.  
Hilean behin

**GURASO 3**  
GURASO ORDEZKARIAK  
Hilean behin  
TALDE ERAGILEA  
Hilean behin

**GURASO 4**  
GIPUZKOAKO IKASTOLEN  
LURRALDE BATZARRA  
Hilean behin  
OBRA BATZORDEA  
Beharren arabera

**GURASO 5**  
HEZKUNTZA BATZORDEA eta  
BIZIKIDETZA BEHATOKIA  
Hilean behin  
LAN BATZORDEA  
Hilean behin  
GURASO ORDEZKARIAK  
Hilean behin  
TALDE ERAGILEA  
Hilean behin  
IKASTOLEN ELKARTEKO  
ZENBAIT EKINTZA  
Urtean 3-4

# Hautaketa prozesua



Guraso guztien artean denon izena duen zerrenda bat banatzen da eta bertatik 5 izen aukeratu dituzte. Boto gehienak dituztenak izango dira hurrengo urteetarako gurasoak ordezkatzeko dituzten Kontseiluko kideak.

Eta aukeratua izaten banaiz?

BIKAIN!!!!

Kontseiluan parte hartzeko aukera daukazu.

Estatutuetako 11. artikuluan, Bazkideen betebeharren atalean hau dio: Kargu bat betetzeko hautatuak badira, onartu egin behar dute, bidezko arrazoirik izan ezean.

Orduan...

Aukeratzea denontzat errazago izan dadin eta gurasook erabaki gune honetan ordezkaritza izaten jarraituko badugu...

BOLONDRESAK BEHAR DITUGU!

Honeraino iritsi bazara eta parte hartzeko interesa baduzu, eman izena inprimaki honetan

**Guraso guztiok benetan eskertzen dugu zure borondatea eta konpromezua!**